

→ Helburuak

Hau ikasiko dute ikasleek:

- Eguzki-erloju bat egiten, hegoaldera begira dagoen horma batean eskegitzeko.
- Erlojuaren dialak egiten duen itzalaren noranzkoa gu gauden lekuaren latitudearen arabera dela.


→ Materiak

- Teknologia
- Fisika
- Geografia
- Geometria

→ Trebeziak

- Eskuzko modelo bat egitea
- Behaketak egitea
- Neurketak egitea
- Graduen kontzeptu geometrikoa ulertzea, baita ordu, minutu eta segundoena ere.

→ Informazioa







Itzala sortzen duen argi-iturria mugitzen denean, objektuen itzala lekuz aldatzen da. Horri esker, denbora neurtzen ikasi zuten gizakiek. Fenomeno hori erabilia, lehen eguzki-erlojuak egin zituzten.

Lurra bere ardatzaren inguruan biratzen da, eta bira bat ematen du eguneko. Zirkunferentzia batek 360° dituenez eta egunak 24 ordu dituenez, 360 zati 24 egiten badugu, 15° lortuko dugu; hau da, Eguzkiak Lurraren zirkunferentziako 15° egiten ditu orduko. Erlojua egiteko, kontzeptu hori hartuko dugu aintzat; zirkunferentzia batean, eguzki-argiari dagozkion orduak markatuko ditugu, 15 gradutik behin marka bat egingo dugu (kontuan hartu gaez ezin dela erlojua erabili).




→ Materialak

- Kartoi edo kartoi mehe zurruna (15 x 15 cm)
- Paper zuriko orri bat (15 x 15 cm)
- Itsasgarri zuria
- Artaziak
- Zinta itsaskorra
- Konpasa
- Erregela
- Lastotxo artikulatu bat
- Hormarako bi kako
- Angelu-garraigailua

→ Realización



- 1 Kartoiaren atzealdean, kakoak itsatsiko ditugu, zinta itsaskorrez.
- 2 Paper zurian, bi arku marraztuko ditugu, irudian ikus daitekeen moduan: bata 10 cm-ko erradiokoa, eta bestea 12 cm-koa.
O puntua markatuko dugu goialdearen erdian, irudian bezala.
- 3 Angelu-garraigailua erabiltuta, markak egingo ditugu, 15°-tik behin. Marka horiek eta O puntua lotuko ditugu, eta lerroak kanpoko zirkuluetaraino luzatu.
- 4 Irudian bezala, zenbakiak jarriko ditugu lerroen amaieran.
- 5 Papera kartoi meheari itsatsiko diogu.
- 6 Lastotxoa ebaki eta irekiko dugu, irudian bezala.



7 Lastotxoia 0 puntuan itsatsiko dugu, irekitako aldetik, irudian ikus datekeen moduan.

8 Angelu-garraiagailua erabilia, gu gauden lekuaren latitudeari dagozkion gradu adina inklinatuko dugu lastotxoia.

9 Nork bere gustura apainduko du eguzki-erlojua.

Hegoaldera begira dagoen horma batean eskegitzen badugu, eguzki-erlojuaren gainean ordua irakurtzeko aukera izango dugu.